

JESUS AURTZOAREN
LENENKO ITZALDIA/
AITA GALDOS'EK
45.2

JESUS AURTZOAREN LENENGO ITZALDIA

JESUSEN LAGUNDIKO AITA GALDOS-ek
asmatutako olerkia



(Amatxok Jesusi):... Nik egunen baten
jan ingo zaitut zu...

(Jesusek Amatxori):... Bai, Amatxo, egi-egiz
zuk jan ingo nauzu...

EDITORIAL «ICHAROPENA»
Z A R A U Z
1 9 5 2

Salneuria: 8,25 peseta

F. Z. E. F.
10/2/52



ZIGANDA

JESUS AURTZOAREN LENENGO ITZALDIA

«Ez du inoiz gizonak
itz-egin ofela»...
Jesus, mutiltxo ofek
eiten dun bezela...

(Io. 7, 46)...

JESUSEN LAGUNDIKO AITA GALDOS-EK
asmatutako olerkia




EDITORIAL «ICHAROPENA»
Z A R A U Z
1 9 5 2

Poema, cui titulus est: «JESUS AURTZOAREN
LENENGO ITZALDIA»

IMPRIMI POTEST
Petrus Abellán S. J.
P. U. O. Rector
Romae 24 Maii anni 1952

IMPRIMATUR
† Jacobus Episc. Sti. Sebastiani
SAN SEBASTIAN 19 de Nov. de 1952



Bear diran baimenekin

Donosti-tik, 1952'g. urtean, Azillaren 25'an.

Jesusen Lagundiko AITA GALDOS ROMUALDO-ri

Gure Gotzai Jaunak eman dizun baimenaren ondoren, nere zorionak pozik baño pozago ematen dizkitzut, alako olerki ederra argitaraltzera zoazelako...

Euskera argi ta garbia, asmo goragarriak, eta bertso-berri zoragarriak... Jesus Aurtxoari eta bere Ama Aundiari jarriak; eta obeki esateko, aien bien biotz-barrenetik zure biotz-barrenera erakarriak; eta gero andik, gure mendietako iturriño garbien ur garbia bezelaxe, goxo-goxo zure ao-ezpanetara etorriak; irakurleen adimenak pozutzeko, eta pozaren pozez, adimenak argituaz, biotzak garbitzeko, ontzeko eta indartzeko.

Jesus Aurtxoak eta bere Ama Aundiak zure lan eder ori onetsi bezate; ori eskatuko diet nere otojetan; zuri, berriz ere, nere zorionik zintsoenak biotz-biotzez emanaz.

Zure lagun eta Kistogan zurekin apaizkide...

JOSE SUDUPE,
DONOSTI-ko Gotzai Jaunaren
Ordezkarri Orokorra.

ESKEINTZA

Euskeldun Ama Euskeltzaleak
eta beaien seme-alaba
guzti-guztiak
artu bezate bai artu
begi-onez eta biotz-obeiz

* * *

egileak berak
biotz eta gogo-onenez
eskeintzen dien
euskerazko olerki-txorta au

* * *

Au ESKEINTZA au egin nun,
Aita JABIER DEUN AGURGAÑA,
gure euskera maitea
ao-biotzetan zerabilela,
il zanetik,
laureun-gafen urtea bete zan,
egun zoriontsuan.

1952'gafen urteko
Lotazilaren 3'an.



JESUS AURTZOAREN LENENGO ITZALDIA (Zortzi abestaldiz antolatutako olerkia)

OLERKI OSOAREN ZORTZI ATALAK

<i>I'go abestaldia:</i> Jesus aurtxoak itzik ez... ..	7
<i>II'garen abestaldia:</i> Amaren bi emaitz... Bi esti... ..	10
<i>III'garen abestaldia:</i> Jesus aurtxoaren lenengo itsak... ..	12
<i>IV'garen abestaldia:</i> Jesus aurtxoaren lenengo itsaldia... ..	17
<i>V'garen abestaldia:</i> Jesusek txikitana esana... aunditan egin... ..	25
<i>VI'garen abestaldia:</i> IKURTON DEUN-DEUNA eta ANDRE MARI... ..	27
<i>VII'garen abestaldia:</i> Eleiz guztiko lenengo MEZA... eta lenengo JAUN-ARTZEA... ..	50
<i>VIII'garen abestaldia:</i> AZKEN-ABESTALDIA... Berpiz- men-aziaren indar izugafia... ..	54



I'go ABESTALDIA

Jesus aurtxoak itzik ez

- 1... Zure amatxo edeñak,
jaio zifianetik,
itz egiten zizun
biotz bañenetik...
- 2... Biotz bañeneko
itz edeñekin
onelaxe amatxok
oi zizun itz-egin:
- 3... «Ene loretxo... ene
izar eta eguzki...
eñai-biotzetako
zatil... kutun txiki...



4... Nere seme maite...
nere ume... nere aurtxo...
nere Jaungoiko aundi...
nere Jaungoikotxo...»...

5... Añi itz eder oiek
zuk amari entzunik,
gelditzen zifian gel
beti-beti ixilik...

6... Ainbeste aldiz amak
itz-egiten zizun,
eta zuk amari
beñi ere ez erantzun...


7... Erantzun bai, bafia
ñi ta bañe utsez;
aurtxo izan, eta itz-
egiten jakin ez...

8... ¿Jakin ez itz-eiten,
Jakintza ber-bera
zu izanik... Jaungoiko
izanik gañera?...

9... Berez dan Jakintza
¿nola egon jakin-ge?...
¿Jaungoikoaren ITZA
nola egin da itz-ge?...

10... Itz-elozu, Jesus,
amatxo maiteari...
gizon izatea
zor diozunari...

11... Ain luzero ez egon
amantzat ixilik...
Besterik ez du nai
zure itz-txo bat baizik...





III'garén ABESTALDIA

Jesus aurtxoaren lenengo itzak...

- 17... Alakoren baten
aoa irikiaz,
itz-egiten asi
zifian *aram-keraz*... (1)
- 18... Aur zifian: ba-zeunkan
urte bat, bafia ez bi;
eta esan zituzun
lau itz garbi-garbi:
- 19... «AMATXO... MIRENTXO...»...
«AITATXO... JOSETXO...»...

(1) *Aram-keraz, Aram-dafien* izkuntza.


- 20... Aitaren ta amaren
a izan zan bai poza...
bieri tanpadaka
jar'zaien biotza...
- 21... ²⁴ Auzo ta efi osoak
ba-ki bereala,
minizatzen Jesustxo
gaur-gaur asi dala...
- 22... Auzoko guztiak
zuri entzute-aren,
zure etxera datoz
laisterka poz-aren...
- 23... Gizon ta emakume,
zar eta gazteak,
txoraturik dauzka
zure itz-egiteak.
- 24... «Ez du ifioiz gizonak
itz-egin ofela;
Jesus, mutiltxo ofek,
eiten dun bezela...»...

- 25... «Aram-keraz dagi
amaren izkuntzaz...
¡Mari ta Joserren
nolako zoriontzazi!...
- 26... Egin ere itz-egin
egiten du ederki...
amak bezin ongi...
aitak baño obeki...
- 27... Eldu da Jesusxo
sei bat urteetara...
ta egiz entzungafi
da bere mintzoera...
- 28... Batez ere amakifi
mintzatzen danean,
biak elkarékifi
diardutenean...
- 29... Bereala amatxok
ikusi zun argi,
Jesusen itz denak
zirala oargafi...

- 30... Argaitik, Jesusen
aotik irtenak
gordetzen zijoan
biotzean denak...
- 31... Ez bakañik gorde...
arduraz elkartu
bata besteakin...
guztiak gogartu...
- 32... Oñela, Jesusen
itz ederenekin
(amatxoren eskuz
lore eder bilduekin)
- 33... Egin zun Mariak
idazfi edefena:
biotz bañeneko
gairik bikañena...
- 34... Idazfi oñetatik
nere zorionez
asierako oñiak
artu difut pozez...

35... Jesusen lenengo
itz-aldi aundiakin,
itz-egiten dula
bere ama maiteakin...

36... Itzaldia elkarki
dagite ama-seeek,
entzuten diela
ix-ixilik Josek...



IV'garén ABESTALDIA

Jesus aurtxoaren
lenengo itzaldia...



37... (Jesusek): Amatxo maitea,
laztantxo bat neri...
(Amatxok): Ez bat; nai dituzun
beste laztan, zuri...

38... (Jesusek): Ama, maite zaituf...
zeinbat, esan ezin...
(Amatxok): Neurtu dezagun ba
geon laztanekin...

50... Neu izango naiz neu
zuretzat janari,
izanaz gafierra
nere odola edari.

51... Amatxo, belduréz
ez zaite ikaratu...
aragi-odol jatez
ez zaite beldurtu...
.....
.....

52... Gure asaba zarak
berogei urteetan,
beren lekaroko
bakartaldeetan,

53... jantzat euki zuten
zuk dakizun MANA...
gotzon-eskuz Jainkok
gizonari emana...:

54... berez (bere izatez)
zeruko ogi zana...
gotzonen ogia
egin zan giz-jana...

55... Baña gure asabak
MANA jan-ondoren,
berogei urteetan
guztiak il ziren...

56... Nere odola beriz
edango duanak...
aaz nere sofia
jatera eltzen danak,

57... ez du eriotzarik
ifioiz ikusiko;
neonek gordeko det
bizirik betiko...:

58... betiko bizmena
bañuan darama...
Esaten noana
¿zifistien dezu, Ama?...»...

59... «Zifistien det zifiez,
Zu, Jainko zerala...
ta zure esatea
egitea dala...

50... Neu izango naiz neu
zuretzat janari,
izanaz gafierra
nere odola edari.

51... Amatxo, belduñez
ez zaite ikaratu...
aragi-odol jatez
ez zaite belduritu...
.....
.....

52... Gure asaba zafak
berogei urteetan,
beren lekaroko
bakartaldeetan,

53... jantzat euki zuten
zuk dakizun MANA...
gotzon-eskuz Jainkok
gizonari emana...:

54... berez (bere izatez)
zeruko ogi zana...
gotzonen ogia
egin zan giz-jana...

55... Baña gure asabak
MANA jan-ondoren,
berogei urteetan
guztiak il ziren...

56... Nere odola beriz
edango duanak...
aaz nere sofia
jatera eltzen danak,

57... ez du eriotzarik
ifioiz ikusiko;
neonek gordeko det
bizirik betiko...:



58... betiko bizmena
baruan darama...
Esaten noana
¿zifinisten dezu, Ama?...»...

59... «Zifinisten det zifiez,
Zu, Jainko zerala...
ta zure esatea
egitea dala...

60... Jango zaitut bai nik,
ta pozik jan ere;
befiz Zu egiteko
beste era ortaz, nere...

61... Baña, Seme, zure
aragi ta odola
¿nik nola jan ta edan?...
¿nola, Seme, nola?...»...

62... «Maitasunak, Ama,
eziñik ez daki:
nik dasaizutena,
jazoko da noski...»...



V'gafen ABESTALDIA

Jesusek txikitan esana, aunditan egin

63... Igaro ziran ba
ogel-ta-sei urte;
bete bear zana
bete zan bai bete...

64... Yosuk Amatxori
txikitan esana,
oso-osorik orain
gertatu da dana...

65... Jerusalemeko
Afaltegi aundian,
Ostegun Deuneko
Azken-Afarian...

66... artu ogia, bere
esku mungarrietan,
onetsi, zafitu,
ipifii eskuetan

67... amabi lkasleeri
esanaz: ARTU... JAN...
AUXE NERE SOÑA...;
berealá bertan

68... edontzia arturik,
esan zun: ARTU... EDAN...
AUXE NERE ODOLA...
ITUN-EDONTZI ONTAN...

69... NERE ITUN BERIAN
ZUENTZAT EMANA,
GIZADIA-N-ALDE
IXURIKO DANA...
EGIN NERE OROITZAT
NIK EGIN DEDANA...

70... Esan ta egin, bere
lksle maiteak
egiztu zituzten
Yosun egiteak...

71... Berak emandako
agindu ederekin,
Jesus eukitzeko
betiko gurekin...


72... Jerusalemeko
Afaltegi aundian,
lenengo Eleizaren
Txadon onetsian,

73... an betikotu zan
Jesusek nai zuna,
aurixo zala, Amagan
eskeifii ziguna...:

74... bere afari aundia...
bere ta gurea...;
pozezko iturburu,
gure ta berea...

75... bere aragi-odolen
IKURTON DEUN-DEUNA,
gure soin ta gogo
deutzen dizkiguna...;

76... bere odola gutzat
edari biurturik;
ta bere aragia
jan-gai guri emanik...



VI'garén
ABESTALDIA

**IKURTON DEUN-DEUNA eta
ANDRE MARI**

77... An dago gure AMA,
an Gure ANDRE MARI...
AMA egiz zayola
gure ELEIZ-AMARI...

78... An daude berakin
amaika BELDUAK,
bere zaintzapean
guztiak bilduak...

79... PEDRORI ANDRE MARIK
entzun zionean,
Yosuk egin zuna
Afal-azkenean;

80... gogoratu zun bai
Yosun itzaldia,
aifñ txiki zaneke,
aifñ itzaldi aundia;

81... eskein zioneko
Jaungoikozko ogia,
odol-aragizko.
janari-edaria...


82... ANDRE MARIAK^ñba
dio SAN PEDRORI:
«Egin zaiguzu egin
esan dezun-ori...

83... Yosuk egin zuna,
zuekin afaltzen;
bere aragi-odolak
zeontzat ematen;

84... bere almen osoa
egiz ta benetan
befi-betikotuz
zeon esanetan;

85... egin zazu, PEDRO,
egin zazu egin,
JESUS emen euki
dezagun gurekin...»....

86... «Egingo det, AMA,
eskatzen dezuna;
zure Seme YOSUK
agindu ziguna»...





VII'garfen ABESTALDIA

**Eleiz guztiko lenengo MEZA ta lenengo
JAUN - ARTZEA**

87... Eta Aita SAN PEDROK
apalan apalez,
bafia batez ere
maitearen maitez,

88... begiak nega'ez,
biotza poz-afen,
ANDRE MARIARI
esana egite-afen,

89... JESUSEK egiñak
arduraz dagizki,
JESUSEN itz berak
argi-argi dasazki...

90... JESUSEN itzekin,
JESUSEN almenez,
(alaten alata)
ardo-ogi-irudipez

91... jartzen du SAN PEDROK
JESUS-JAUNGOIKOAREN
izate guztia;
jainkotasunaren

92... izate amaigea...
giz-izate osoa,
odol eta aragi,
soin eta gogoa...

93... JESUS... JAINKO-GIZON
osorik dan-dana...
gure maitasunez
kurtzean il zana...

94... ANDRE MARIAREN
esan ezin poza;
ikusirik JESUS,
Jainkoren BILDOTSA,

95... ardo-ogi-irudipez
egi-egiz dagola...
ikaraz SAN PEDROK
erakusten diola...

96... ANDRE MARIA da
Jaun-artzen lenengo...
amaika BELDUAK
datoz ondorengo...

97... Orduetik gaurdaño
zeinbat eta zeinbat
Jesusekin jatez
egin dirade bat...


98... Baña batez ere
bat-egite estu ori
eman zion eman
YOSUK bere AMARI...

99... Urtero ta ilero,
ilero ta astero,
astero ez bakañik,
bai eta egunero

100... bere Semearen
odol-aragiak
artzen zitun artu
gure ANDRE MARIAK;

101... bertan aurkiturik
jainko-indar guztia,
batez ere beaien
BERPIZMEN-AZIA...;

102... eriotz ondoren
egiz berpizteko,
berpiztuta gero
zerura igotzeko...





VIII'garāen ABESTALDIA (Azken Abestia)
Berpizmen-aziaren indar izugaria

103... Ta il zan ANDRE MARI...
eta il ere egi-egiz;
baña bereala
BERPIZTU zan beñiz...

104... Obeki esateko,
YOSUK BERPIZTU ZUN;
lurpetik ateraz
betiko bizmendun...

105... YOSUK BERPIZTU ZUN
bere AMA zalako;
bere giza-sofia
eman ziolako...

106... Baña ofen-gain YOSUK
berpiztu zun piztu,
bere agindua
ziolako egiztu...


107... Ainbeste aldiz YOSUN
odol-aragiak
jan eta edan zitu-
lako ANDRE MARIK,

108... bereturik zeukan
jainko-indar guztia,
batez ere beaien
BERPIZMEN-AZIA...

109... Jaungoikozko azi-ofen
indafen indaiez,
berpizmen-aziaren
ernaimen ta egitez,

110... ANDRE MARIAREN
soin eder garbia,
bizmendun lurpetik
jaiki zan bizia...

111... BIZIA... beñi ere
geiago ez iltzeko,
JESUSEKIN beñi
zoriontsu izateko...



Jesusen Lagundiko AITA GALDOS ERROMALEK *euskeraz argitaratutako idaztiak...*

- 1... ERRUTENAK, iberkeraz artu eta bizkaieraz ipifilak (BILBO-n 1922'g. urtean).
- 2... MIKEL GARICOITS ZORUNDUNAREN BIZITZA: lapurdieraz artu, eta lapurdieraz eta gipuzkoeraz argitaratua (BILBO-n 1922'g. urtean).
- 3... YOSU-KISTO GURE YAUNAREN NEKAUSTEA: Aita KARDABERAZ-ek lenengokoz argitaratua; eta Aita GALDOS-ek jakintsuentzat aukeratutako irarkaldia: *gipuzkoeraz eta bizkaieraz* (DONOSTI-an 1928'g. urtean).
- 4... YOSU-KISTO GURE YAUNAREN NEKAUSTEA, erriarentzat aukeratua, *gipuzkoeraz* (DONOSTI-an 1928'g. urtean).
- 5... YOSU-KISTO GURE YAUNAREN NEKAUSTEA, erriarentzat aukeratua, *bizkaieraz* (DONOSTI-an 1928'g. urtean).
- 6... MUJIKATAR MATAI GOTZAI YAUNARI, ONGI ETORRIA: euskeraz eta beste 9 izkuntzaz (DONOSTI-an 1928'g. urtean).
- 7... DABIDEN ABESTIAK, lenengo abes-txorta (1-40) (ERROMA-n 1936'g. urtean).
- 8... YOSU-KISTO GURE YAUNAK KURUTZEAN ESANDAKO ZAZPI ITZAK, *euskeraz* eta beste 11 izkuntzaz (DONOSTI-an 1940'g. urtean).
- 9... JESUS AURTZOAREN LENENGO ITZALDIA: zortzi abestaldiz antolatutako olerkia (ZARAUZ-en 1952'g. urtean).

